

Diaspora

Aurkibidea

Udalerria: Diaspora

Sarrera



Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **36**
- Zintak: **35**
- Pasarteak: **0**
- Transkribatutakoak: **0**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **0**

Proiektuak

- Diasporako Ahotsak

Hizlariak

Noel Abella Aiscar (1977)



Montevideon jaio eta bizi izan da. Amaren aldetik euskal jatorria du: Zuberoako Muzkildi herritik joan ziren Uruguaira, XIX. mende amaieran. Montevideoko Euskal Herria euskal etxea bere familiakoek sortu zuten. Noel Montevideoko Haize Hegoa euskal etxean hasi zen euskara ikasten, duela bospasei urte. Euskal Herrira duela bost urte etorri zen lehen aldiz, barnetegi batera. Euskara ikasten jarraitu zuen eta hiru urte daramatza zoom bidez euskara irakasten. Elkarrizketatu genuenean Lazkaoko Maizpide euskaltegian zegoen, "Euskara munduan" programarekin, euskara hobetzen, gero Uruguain euskara irakasle izateko. Orkestra bateko musikaria eta musika irakaslea da ogibidez eta ipuinak idaztea ere gustatzen zaio: euskaraz idatzitakoekin emanalditxoa egin zuen Lazkaon.

Jeanette Almirantearena (1966)



Ezkonduz geroztik, Duhart. Chinon jaioa, gurasoak euskaldunak zituen: aita Muskildikoa (Zuberoa) eta ama Ameriketara sortua baina euskal jatorrikoa (aitatxi Luzaidekoa zen eta amatxi ere euskalduna). Esetegia zuten Chinon (zazpi urtean familia Middletonen bizi izan zen, Idahon; Jeanette Oinkari dantza taldean ibili zen, Boiseko euskal etxean). Chinoko euskal klubeko kide aktiboa da; dantza-irakasle aritu zen eta orain akordeoia jotzen du haurren taldearentzat. Irakaslea da. Senarra ere Chinon jaioa da, baina euskal jatorrikoa. Hiru alaba dituzte.

Etienne Amestoy (1946)



Chinon jaioa (Kalifornia), aita Sarakoa zuen (1929an artzain joana Ameriketara) eta ama Esnazukoa (1927an joana, neskato, Los Angelesera). Aitak 3.000 ardi zituen eta Etienne (bi senidetan zaharrena) harekin ibili zen lanean umetatik. Bost urterekin eskolan hasi zenean ez zekien ingelesez hitz egiten. Euskara zen etxeko hizkuntza. Oinarrizko ikasketak egin ondotik, Nekazaritza ikasi zuen. 19 urterekin aitaren lekua hartu zuen, hura gaixotu egin zelako. 1968an Mayie ezagutu zuen (Makean jaioa, 1966an Los Angelesera joan zen neskato), bere emaztea izango zena; alaba eta semea izan zituzten. Behiekin eta belarketan aritu zen denbora batez, eta 1973an Imperialera joan ziren, bildotsak bazkatzera (30.000 bildots); El Centro herrian bizi izan zen, 19 urtean, familiarekin; emazteak ere bertan egiten zuen lana. Gero Carson Cityra (Nevada) joan ziren bizitzera: grua-negozioa izan zuen alabaren senarrarekin, zazpi urtean. 1992tik bertan bizi dira.

Anita Anakabe (1954)



Elkon jaioa (Nevada). Ama, Margari Olabe, Iruzubieta auzokoa zuen, Berriatuakoa; aita, berriz, Berriatuako Anakabe baserrikoa. Aita 1902an Ameriketa joan zen, 13 urterekin. Merkantzien zaldi-karroak gidatzen eta cowboy moduan (zaldia mantsoitzen) ibili zen, harik eta 1924an McDemitten denda bat ireki zuen arte. Fabiana Goenaga ondarrutarrarekin ezkondu zen eta seme bat izan zuten; 1928an denda saldu eta Euskal Herrira joan ziren, Gasteizera, hilabete batzuetarako; Ameriketako krisi ekonomikoa gertatu zen orduantxe, Wall Streetko kracka. Bueltan, 1936an, beste denda bat zabaldu zuen Elkon; 1950etik aurrera langileentzat arropa eta oinetakoak saltzen hasi ziren (artzaintzat batik bat). 1952an Fabiana hil egin zen eta Jose Mari Euskal Herrira joan zen emaztegai bila. Margari ezagutu zuen eta ezkondu Elkora joan ziren bizitzera: Anita jaio zen bertan. Anita Elkon egin zituen oinarrizko ikasketak eta gero Boisen maistra-ikasketak egin zituen. Gaztelaniako irakaslea izan da eta baita euskarakoa ere, baina familiako dendan egin du lan gehien. Mike Franzoiarekin ezkondu zen eta lau seme-alaba izan zituzten. Boiseko eta Elkoko euskal etxeetan aktibo ibili dira biak.

Victor Arretche (1953)



Guraso biak Baigorrikoak zituen, baina Huronen (Kalifornia) bizi ziren Vittor jaio zenean (jaiotza-izena Gratien du, bainba Vittor deitu izan diote umetatik; amerikarrentzat, berriz, Vic da). Arreba zaharrena Euskal Herrian jaio zen eta anaia bat ere badu. Aita -Victor- 1948an joan zen Wyomingera, artzain, handik Fresno eta gero Huroneko arrantxo batean hazi zuten familia. Arrantxoko ugazabak ardiak eta behiak zituen eta Vittorren aita langileen enkargatua zen; ama, sukaldaria. Gurasoekin euskaraz, artzain euskaldunetz inguratuta hazi ziren, eta eskolan hasi zenean ez zekien ingelesez. 11 urte zituenean Wool Growers euskal ostatua erosi zuten gurasoek eta Los Baños herrira joan ziren bizitzera. Bertan jarraitu zuen ikasketekin, aldi berean hotelean lagunduz. Ingenieritza ikasi zuen eta hainbat lanetan ibilia da. Bi aldiz ezkondu da (hirugarren aldiz ezkontzekotan zen elkarrizketatu genuenean) eta hiru seme-alaba ditu. Bere ama Genevieve ere elkarrizketatu genuen, 100 urte betetzear zela (zahar etxean elkarrizketatu genituen biak). Los Bañoseko euskal klubeko kide aktiboa da (besteka beste, sukaldean eta dantzan aritua).

Mery Bajoneta (1949)



Ezkonduz geroztik, Mary Igoa. Lee herrian jaioa (Nevada), aita Ereñokoa zuen eta ama Ameriketara joan baina Natxituako gurasoak zituena. Euskal ostatua eta denda zuten Leen. Bi senidetan gazteena, 16 urterekin Alfonso Igoa lesakarrarekin ezkondu zen eta Lee herriko Camperter arrantxora joan zen bizitzera: senarra enkargatua zen bertan eta bera sukaldaria izan zen. Bi seme-alaba izan zituzten eta umeak artean nahiko txikiak zirenean Elkora joan ziren bizitzera. Maryk kontabilitatea ikasi zuen eta banku batean egin zuen lana hainbat urtean. Elkoko euskal klubeko kidea da aspalditik. Alfonso Igoa senarra eta Patxiko semea ere elkarrizketatu genituen, Elkoko Star Hotelean.

Regina Bastida Arrizabalaga (1922)



Ezkontza-izena Regina Aldekoa. Boisen jaioa, bere ama Arteagan jaioa zen, baina ereñoan bizitua. Aita, berriz, Ereñokoa. Gurasoak Ameriketara joan ziren, 1916 urte inguruan, Boiseran. Reginak bost urte zituela ama hil zitzaion eta aita berriz ezkondu zen. Urte batzuetan osaba-izebekin bizi izan zen Nampan (Idaho); Modern euskal ostatua zuten. Erizaintza ikasi zuen Boisen eta II. Mundu Gerran Californiara joan zen gerrako soldaduak artatzera, armadako soldadu moduan. 1946ean senarra izango zena ezagutu zuen, pike-nike batean: Fermin Aldekoa (Boisen jaioa, baina jatorri euskalduneko). Boiseko ospitale batean egin zuen lana erretiroa hartu zuen arte. Boluntario lan asko egin zituen, beharra zutenei laguntzen. Euskal Etxean ere aktiboa izan zen. Elkarrizketatu genuenean 103 urte zituen eta autoa gidatzen jarraitzen zuen.

Jeanette Bicity (1950)



Ezkonduz geroztik, Bidart. Modeston jaioa (Kalifornian), guraso biak euskaldunak zituen: aita Azkaratekoa zuen eta ama Stocktonen jaioa, baina haren gurasoak Bidarraikoak; aitatxik esnetegia zuen Pattersonen. Jeanette alaba bakarra da eta, oinarrizko ikasketak egin ondotik, etxeko esnetegian ibili zen lanean. Ile apaintzaile ikasketak ere egin zituen eta hori izan du lanbidea. Akordeoia jotzen du eta dantza egitea maite du (aita dantza-irakasle zen Los Banoseko euskal klubean); Euskal Girua taldeko kidea izan zen. Mike Bidartekin ezkondu zen (Chinon jaioa, baina euskal jatorrikoa eta euskaldun hura ere). Seme bat eta alaba bat izan zituzten (alaba musikaria da). Senarra ere elkarrizketatu genuen Chinoko euskal etxean, biak toki berean.

Michael Bidart *Mike* (1950)



Chinon (Kalifornia) jaioa, ama bertan sortua zuen baina euskal jatorrikoa (aita Aldudekoa zuen eta ama Erratzukoa). Aita, berriz, Ibarlakoa (NB) zen: 1930ean joan zen Chinora, arrebarengana, eta behei jezten aritu zen lanean. Ezkondu zirenean, aitak esnetegia zuen Pomonan eta hura saldu, eta Chinora joan ziren bizitzera: esnetegia ipini zuten, 1948an. Hantxe hazi ziren Mike eta bere anaia (beste bi haurride umetan hil ziren). Mikek hamalau urte zituenean ama hil zitzaien; aitak behiak saldu zituen. Mikek Ekonomia ikasi zuen eta abogatu da. 1973an Jeanettekin ezkondu zen (Modeston jaioa, Kalifornia, baina euskal jatorrikoa hura ere). Semea eta alaba dituzte. Andrea alaba musikaria da (Noka musika taldekoa), aita bezala: Mikek akordeoia jotzen du eta abestu egiten du. Hainbat CD ditu grabatuta (bat alabarekin). Jeanette emaztea ere elkarrizketatu genuen, biak Chinoko euskal etxean.

Aline Biscaichipy (1973)



Ezkonduz geroztik, Anema. Chinon sortua, ama Urepelekoa zuen eta aita Ahatsakoa (Ameriketara bizi zelarik, bisitan joan zen; emaztea ezagutu zuen; ezkondu, eta Ameriketara joan ziren bizitzera). Aline eta bere anaia euskal giroan hazi ziren. Gurasoek esnetegia zuten Chinon. Senarra amerikarra da, baina euskalzalea. Esnetegia izan zuten, baina saldu egin behar izan zuten. Geroztik Aline adazkari lanetan ari da. Hiru seme-alaba izan zituzten. Chinoko euskal klubeko kide aktiboa da (bertan elkarrizketatu genuen). Dantza taldean aritu da eta dantza irakasten ere bai.

Marianna Bordato (1945)



Ezkonduz geroztik, Etcheberria. Artesian sortu (Kalifornia), ama bertakoa zuen, baina euskal jatorrikoa (amatxi Bidarraikoa eta aitaxi Bankakoa, Coloradon ezagutu zuten elkar); aita, berriz, Lasan sortu zen eta Santa Barbarara (Kaliforniara) joan zen lanera. Artista aberatsentzat chofer izan zen 4-5 urtean. Esnetegia zuten etxean. Marianna eta bere anaia euskal giroan hazi ziren: eskolan hasi zenean, Mariannak ingelesik ez zekien. 18 urte zituenean, familia Uplandera joan zen bizitzera, Chino ondora. Gaztetan banku batean aritu zen lanean, baina ikasten jarraitu zuen eta geroztik finantzen arloan egin du lana. Senarra ere euskalduna izan zuen, Arnegikoa; kamioilaria zen. Alaba bat izan zuten. Marianna Chinoko euskal klubeko idazkaria da; dantza-irakaslea izan da eta mus txapelketetan parte hartzen du. [Bridge to de Pirenees](#) proiektuan ere ari da: Jeannet Bidartek eta biek 40 euskaldun elkarriketatu dituzte, ahozko ondarea jasotzeko.

Katte Camino (1964)



Buffalon (Wyoming) jaioa, guraso euskaldunak zituen, biak Arnegikoak (Nafarroa Beherea); aita 1928an joan zen Ameriketara, artzain, eta amaren familia ere bai. 1947an ezkondu ziren. Zazpi senidetan zazpigarrena izan zen Kate (Kattalin); anai-arreben artean ingelesez egiten zuten. 1983an Donostiara joan zen ikastera, USAC programarekin; euskara ikasten hasi zen hala; frantsesa ere ikasi zuen, birritan joan baitzen. Pauen literatura frantsesa ikasten ere egon zen gero. 1989an Bilboko ikastola batean egon zen lanean, ingelesa erakusten, bi urtean. Buffalora bueltatu zen zen, eta banku batean hasi zen lanean. Ahizpa bat zeukan Renon (Nevada) eta 1997an hara joan zen, frantsesa ikastera eta irakasle-titulua ateratzera. Basque Studies zentroan hasi zen lanean, eta geroztik hantxe dago. 2000. urtetik euskara irakasten ari da Renoko unibertsitatean. Buffaloko euskal etxeko idazkaria eta Renoko euskal klubeko presidentea ere izan zen. NABOko idazkaria izan zen eta webguneko edukiaz bera arduratzen da orain ere. Senarra ere euskal jatorrikoa du, Malagakoa baina Durangon hazia: 1976an artzain joan zen Ameriketara; bi alaba izan zituzten: Ezti eta Oihana.

Elisabeth Curutchage (1966)



Bakersfielden jaioa, guraso biak euskaldunak zituen: aita Duzunaritzekoa eta ama Ezterenzubikoa. Gurasoek Chateau Basque jatetxea zuten Bakersfielden. Elisabethek eta haren anaiak euskara ikasi zuten umetatik. 11 urterekin jatetxean aritzen zen laguntzen, udatan. Irakaslea da. Seme bat dauka. Euskal klubeko kidea da: palan jokatzeko ikasi zuen; 5 urtetatik dantzan aritu zen eta gero dantza irakasten ere ibilia da. Gaztetatik joan izan da Euskal Herrira, familia bisitatzera. Bere ama (Maite), eta osaba (Mattin) ere elkarrizketatu genituen.

Jane Erramuzpe (1930)



Ezkonduz geroztik, Jane Etchebehere. Fresno (Kalifornia) jaioa, guraso biak euskaldunak zituen: ama Azkaratekoa (NB) -1903an Fresnoa joana, osabengana- eta aita Erratzukoa (N): 1897an Stocktonera joan zen, Kaliforniara, artzain. Alaba bakarra, 6 urtetik 18ra bitarte Tranquility herrian bizi izan ziren eta han ibili zen eskolan. 1947an Fresnoa joan zen bizitzera; administrari lanean hasi zen. Urte horretan bere senarra izango zena (Pierre Etchebehere, Irisarrikoa) Ameriketara joan zen artzain. Elkar ezagutu, ezkondu, eta bost seme-alaba izan zituzten; ardi-konpainia izan zuten Lemooren (1953etik bertan bizi izan dira): Jane sukaldean aritzen zen. Haurrei euskaraz egiten zieten. Jane dantzazalea zen eta Fresnoko Basque hotelean dantzak irakasten ibili zen. Fresnoko Santa Fe euskal jatetxean egin genion elkarrizketa.

Lianne Errea (1965)



Ezkonduz geroztik, Lianne Iroz. Winnemuccan jaioa (Nevada, AEB) aita Baigorrikoa zuen eta ama Ilyn (Nevada) jaioa baina euskal jatorrikoa: aita Lasakoa zuen, Ameriketara artzain joandakoa (Eurekako arrantxo batera), eta ama Bankakoa; hura ere lanera joan zen Ameriketara, sukaldari (Joan Paris -Joan errea ezkonduz geroztik- idazlea eta poeta izan zen, eta hainbat liburu idatzi zituen). Liannek eta bere anaia Louisek euskara ikasi zuten etxean. Liannek idazkaritza ikasi zuen eta bere senarrarekin batera egin du lana; John Iroz senarra ere Winnemuccan jaioa da, baina gurasoak Luzaidekoak (Nafarroa) zituen: seme bat izan zuten. Winnemuccako euskal klubeko kideak dira biak. Louis anaiarekin batera elkarrizketatu genuen Lianne, Renoko unibertsitateko liburutegian.

Louis Michel Errea (1957)



Winnemuccan jaioa (Nevada, AEB) aita Baigorrikoa zuen eta ama Illyn (Nevada) jaioa baina euskal jatorrikoa: aita Lasakoa zuen, Ameriketara artzain joandakoa (Eurekako arrantxo batera), eta ama Bankakoa; hura ere lanera joan zen Ameriketara, sukaldari (idazlea eta poeta izan zen, eta hainbat liburu idatzi zituen). Louisek eta bere arreba Liannek euskara ikasi zuten etxean. Louisek ez zekien ingelesik, eskolan hasi zenean. Oinarritzko ikasketak egin ondoren, harategi batean egin zuen lana eta gero aitaren lekua hartu zuen errepideak konpontzen (gobernuarentzat lanean). Winnemuccako euskal klubeko kidea da; Lianne arrebarekin batera elkarrizketatu genuen, Renoko unibertsitateko liburutegian.

Jerry Etcheberry (1933)



Eureka herrian (Nevada) jaioa, guraso biak Iparraldekoak zituen: aita Arnegikoa (1913an Ameriketara joan zen artzain) eta ama Urepelekoa (1928an sukaldari joana Eureka). Aitak arrantxo zeukan eta, 1929ko krisi ekonomikoak bete-betean harrapatu bazuen ere, hutsetik hasi eta berriro sortu zuen. Jerry eta bere arreba arrantxoan hazi ziren. Eskolara joan zirenean ingelesik ez zekiten, langile guztiak euskaldunak zirelako. 1956an arrantxo utzi eta eraikuntzan hasi zen lanean; gero estatuarentzat aritu zen, errepideak egiten dituen enpresan enkargatu. Jerry hiru aldiz ezkondu zen: 1955ean emakume amerikar batekin; alaba bat izan zuten eta 9 urtera banandu egin ziren. Bigarren emaztea ere amerikarra zen; beste alaba bat izan zuten; 21 urte egin zituzten elkarrekin. Hirugarren emaztea, Nekane Markez, Lekeitiokoa zen (alarguna zen). Winnemuccako euskal klubeko kidea izanik, NABOko Winnemuccako ordezkaria ere izan zen aldi batez.

Jean Flescher (1963)



Salt Lake Cityn jaioa, aita Nebrascakoa zuen baina Salt Lake Cityra joana bizitzera; ama, berriz, Ezterenzubikoa (Nafarroa Beherea), 1955ean Gardervillera (Nevada) joan zen euskal hotel batean lana egitera; hantxe ezagutu zuten elkar, kamioilaria baitzen. Bi anaia-arrebetan zaharrena, Utah-ko unibertsitatean ikasi zuen. 12 urte zituela, euskara ikasten hasi zen, apaiz baten laguntzarekin. 15 urterekin Euskal Herrira joan zen hiru hilabeterako. Bueltan, Salt Lake Cityko euskal klubera joan zen; 17 urterekin klubeko zuzendaria zen (dantza taldekoa ere bazen). Oinetako eta arropa inportazio-enpresa bat sortu zuen San Franciscon eta hango euskal etxeko zuzendaritzan egon zen eta dantza-irakasle izan zen; musika banda bat ere sortu zuten. 1995ean ezkondu zen, Monique Heguilustoyrekin (Bakersfielden, Californian jaioa, baina euskal jatorrikoa). Familia izateko Salta Lake Cityra joan ziren bizitzera; seme bat eta alaba bat izan zituzten. Jean eraikuntzan ibili da lanean. Elkarrizketa egin genionean, NABOk zuzendaria ere bazen. Akordeoia jotzen du eta amerikanoak musika taldeko kidea da.

Jean Jules Flesher *Jota Jota* (1999)



Salt Lake Cityn jaioa, AEBetako Utah estatuan. "Jota Jota" bezala ere ezaguna, bereziki Euskal Herrian. Jatorri euskalduneko familia du amaren zein aitaren aldetik, Nafarroa Beherekoa (Ezterenzubi eta Ortzaizekoak). Amaren aldeko aitona artzain izateko joan zen Estatu Batuetara, 40ko hamarkadan eta abeltzaina izan zen. Familiar euskal kultura mantendu dute eta baita euskara ere: aitak euskara ikasi zuen eta Jean Julesi euskaraz egiten zion txikitan; amak, berriz, frantsesez. Eskolan hasi zenean biak ahaztu zituen, eta ingelesa nagusitu zitzaion. Hori bai, NABOk antolatutako "Udaleku" programan parte hartzen zuen eta Euskal klubak antolatutako euskal giroko festa eta ekimen askotan. Aita NABOk lehendakaria da. Jean Julesek panderoa jotzen du "Amerikanoak" musika taldean (aitak, berriz, akordeoia), eta euskal festa askotan parte hartzen dute. Gazte Mundu programarekin etorri zen Euskal Herrira eta euskara berreskuratzen hasi zen. Elkarrizketa egin genionean Lazkaoko Maizpide euskaltegian zegoen, euskara hobetzen. Hika eta xuka ere hitz egiten zituen. Iparraldeko euskaraz gainera, bizkaiera ere ikasteko asmoa zeukan.

Scott Igoa Patxiko (1967)



Patxiko deitzen diote (aitonak ipini zion izen hori). Lee herrian (Nevada) jaioa, guraso biak euskaldunak zituen. Aita lesakarra, Ameriketara artzain joana eta ama Leen jaioa, baina jatorri euskaldunekoa: bizkaitarra. Arreba gazteago bat du. Carperter arrantxoan bizi izan zen 12 urterarte, familiarekin; herrian bertan bizi ziren aitona-amonak ere -euskal ostatua izan zuten- eta haiekin ere asko egoten zen. Eskolan hasi zenean ez zekien euskara besterik. Gero familia Elkora joan zen bizitzera. Hainbat kiroletan ibili zen, baseballean batez ere. High School bukatu zuenean, 4 urte eman zituen gobernuarentzat lanean, aitak bezala bideak konpontzen, eta ondoren 16 urte urre-meatzeetan lanean (Elkoko bizibide nagusia da). 38 urte zituenean Elkoko Star Hotela erosi zuen, euskaldunen artean oso famatua dena. Hantxe elkarrizketatu genuen; Alfonso eta Mery gurasoak ere elkarrizketatu genituen. Hainbat mus txapelketa irabazi ditu, aitarekin batera. Alaba bat dauka.

Linda Indaburu (1967)



Ezkonduz geroztik, Iriart. Chinon (Kalifornia) sortua, gurasoak Ipar Euskal Herrikoak zituen: aita Duzunaritzekoa (artzain joana Ameriketara, behi-jezten hasi zen gero) eta ama Bankakoa. Esmetegia zuten Chinon. Lindak eta bere anaiak etxean ikasi zuten euskara; aitak ez zien uzten etxean ingelesez hitz egiten. Lindaren senarra ere Chinon sortua eta euskal jatorrikoa da. Bi alaba dituzte. Lindak kontabilitatea ikasi zuen, baina gaur egun argazkilaria da. Chino euskal klubeko kide aktiboa da: dantza-taldean ikasle zein irakasle moduan aritu da eta elkarrizketatu genuenean klubeko idazkaria zen.

Xabier Irujo Ametzaga (1967)



Caracasen jaioa, Venezuelan, guraso biak euskal jatorrikoak zituen: 1936ko gerrako erbesteratuak ziren biak. Ama Buenos Airesen jaioa, Uruguain eta Venezuelan bizitua, baina sustraiak Algortan zituena. Aita, berriz, Bidarten jaio baina Lizarran bizi izandakoa, haren familia ere Venezuelara jjoan zen ihesi. Xabierren arbaso asko politikariak izan ziren. Lau senidetan zaharrena, Xabier Caracaseko ikastolan ibili zen. 12 urte zituenean, familia Euskal herrira bueltatu zen. Iruñeko San Fermin ikastolan jarraitu zituen ikasketak. Batik bat Altzuzan bizi izan ziren. UNEDen bitartez hiru karrera egin zituen: Historia, Filologia eta Filosofia. Gero baita bi doktore ere. Agoizko neska batekin ezkondu zen eta lau seme-alaba izan zituzten. Bosgarrena Boisen (Idaho) jaio zen, bertako unibertsitatean hasi zelako lanean. Handik Renora joan ziren bizitzera, irakasle plaza atera zuelako Renoko unibertsitatean. Elkarrizketatu genuenenan Renoko Basque Studies Centroko zuzendaria zen. Ikerlaria eta idazlea da; Euskal Herriko historia, memoria historikoa eta euskal diaspora aztertu ditu batez ere. Erbestea da bere gai nagusia, umetatik gertutik ezagutu duena.

Rita Iturreria (1919)



Ezkonduz geroztik, Rita Etchepare. Patterson herrian (Kalifornia) jaioa, guraso biak nafarrak zituen: ama Sunbillakoa eta aita Erratzukoa. Bakoitza bere aldetik joan zen Ameriketara, eta Los Angelesen (Kalifornia) ezagutu zuten elkar. Ritak lau anaia zituen. Aitak esne-behiaren negozioan egiten zuen lana. Batiste Etcheparerekin ezkondu zen (Mendibekoa, hura ere Ameriketara joana) eta lau seme-alaba izan zituzten. San Francisco inguruan bizi izan ziren. Elkarrizketatu genuenean Ritak 106 urte zituen eta zahar etxe batean zegoen.

Fernando Iturriria *Freddie* (1968)



Bakersfielden jaioa, aita Lekarozkoa (Nafarroa) zuen eta ama Bakersfielden jaioa baina jatorri euskaldunekoa (gurasoak Iparraldekoak zituen). Hiru senidetan erdikoa da Fernando (guztiak Freddie deitzen diote). Aitak eta osabak ardi-negozioa zuten (A&F) eta bera laguntzen ibili da umetatik. Ingerieritza ikasi zuen, Bakersfielden, eta San Franciscon egon zen lanean, zortzi urtez ingeniari. Osaba hil zenean, aitarekin hasi zen lanean eta orain ardi-negozioaren arduraduna da. Amerikar batekin ezkondu zen eta bi seme-alaba izan zituzten. Asko joaten dira Euskal Herrira, bisitan, eta Bakersfieldeko euskal klubean ere kide aktiboak dira.

Michelle Jaureguy (1969)



San Franciscan (Kalifornia) jaioa, sei urte zituenean familia Chinora joan zen bizitzera. Guraso biak Baigorri sortu ziren (ezkondu ondoan joan ziren Ameriketara; aita lehenago joana zen hara); aitek esnetegi batean egiten zuen lana eta amak etxeak garbitzen. Hiru senidetan bigarrena da Michelle. Chinoko euskal klubeko kide aktiboa da: dantza-taldean aritu zen eta dantzak irakasten dizkie hurrei. Seme bat du. Akordeoia jotzen du.

Marianne Laxague (1940)



Santa Monican jaioa (Kalifornia), bi senidetan zaharrena. Juanita bere ama Artesian (Kalifornia) sortua zen, baina jatorri euskaldunekoa zen (ama Eugikoa zuen eta aita Aldudekoa) eta euskaraz mintzatzen zen. Pierre aita, berriz, Urepeletik Winnemucara (Nevada) artzain joana 1921ean, okina izan zen gero. Gurasoek Pirenees okindegia erosi zuten Bakersfielden, familiaren negozioa izan zena: ogia egiteaz gainera, denda zuten. Marianne okindegian aritu zen lanean umetatik. Idazkaritza ikasi zuen eta idazkari ibili zen lanean 20 urtean, baina anaia hil zenean, okindegira bueltatu zen gurasoei laguntzera; egun erdiz idazkari lanetan jarraitu zuen hasieran, eta gero, aita hil zenean, bera egin zen okindegia kargu (gero ilobak hartu zuen negozioa). Bakersfieldeko euskal klubeko kidea da: dantzan eta akordeoia jotzen ikasi zuen bertan. Hegazkin-pilotua ere izan zen.

Etienne Lekunberri (1998)



Gadnervillen jaioa (Nevada), guraso biak bertakoak zituen. Aitaren aldetik euskal jatorrikoa da: aitatxi Orzaizkoa zen, 1947an artzain joana Ameriketara. Aitatxik, amatxik eta osaba batek JT jatetxea erosi zuten, Gadnervillen. Aita eta izeba egin ziren negozioaren kargu ondoren. Etiennek ere bertan egiten du lana, barran: hirugarren belaunaldia da. 20 urte zituenean euskara ikasten hasi zen. Birritan egon da Euskal Herrian, Maizpide barnetegian (Lazkao, Gipuzkoa). Hika hitz egitea maite du.

Patxi Lostra Jauregi (1951)

Francis Anton du bataio izena, baina Patxi bezala da ezagunagoa. Bost senidetan bigarrena, Elkon (Nevada) jaio zen, eta baita haren gurasoak ere, euskal jatorrikoak izan arren; aita mekanikoa zen. Aitaren aldeko aitona Luzaidekoa zen (Nafarroa, artzain joan zen Kaliforniara eta gero handik Nevadara) eta amona Arrietakoa (Bizkaia); ardi arrantxoa ipini zuten. Amaren aldetik, berriz, Muxikakoak ziren: aitonak Star Hotela ireki zuen Elkon (Nevada) eta amona Elkoko Old Corner Bar tabernako ugazaba izan zen.



Patxiren etxean euskara zen nagusi baina, anai-arreben artean ingelesez egiten zutenez, euskaraz hitz egiteko erraztasuna galdu zuen. 1969an, Hight School ondoren, Boiseran (Idaho) joan zen kontabilitatea ikastera eta han euskal munduan murgildu zen: Oinkari dantza taldean, besteak beste. Euskara berreskuratzen joan zen pixkanaka. Elkora bueltatuta, Boisen jaioa den July Chacartegirekin ezkondu zen (euskal jatorrikoa hura ere, aita Lekeitiokoa baitzuen; ama greziarra, baina euskara ikasi zuena). 1978an Oñatira (Gipuzkoa) joan ziren biak, Boiseko Basque Studies Abroad programarekin, eta hiru urtez geratu ziren han bizitzen. Boiseran bueltatu ziren gero. Seme bat dute. Orain, erretiroa hartuta, beraien helburua Oñatin ahalik eta denbora gehien pasatzea da. Oñatin elkarrizketatu genuen Patxi.

Jenny Maitia (1952)

Bakersfielden (Kalifornia) jaioa, guraso biak euskaldunak zituen: ama Baigorrikoa zen eta aita Donazaharrekoa. Nor bere aldetik joan zen Ameriketara: ama Amezttoy euskal ostatuan ari zen lanean eta aita (artzain ibilia) Noriega hotelean, elkar ezagutu zutenean. 1954an Wool Growers jatetxea zabaldu zuten eta bertan hazi ziren Jenny eta bere anaia. Euskara ikasi zuten biek, haurzain euskaldunak izan zituztelako eta giro euskalduna etxean zein jatetxean. Eskolan hasi zenean, ez zekien ingelesez. 18 urtera arte ibili zen eskolan, Bakersfielden (San Franciscon ere egin zuen urtebete), baina 11 urtetatik jatetxean aritu zen lanean. Orzaizko Benat Arduainekin ezkondu zen eta bi alaba izan zituzten. 1978an jatetxe handiago bat erosi zuten (senar-emazteek, Maddy Maitia amarekin batera), eta han ipini zuten Wool Growers jatetxe berria, gaur egun ere irekia dena (ama-alabak dira negozioaren arduradunak). Jenny bigarrez ezkondu zen, Poncetta abizeneko Bakersfieldeko gizon batekin, jatorri italiarrekoa bera.



Sabrina Otegui (1973)

Aitaren aldetik euskal jatorria du (birraitona Tolosakoa zuen) eta amaren aldetik, berriz, ingelesa (Wood). Argentinako Pergamino hirian jaioa, 18 urterekin Buenos Airesera joan zen unibertsitate-ikasketak egitera. Han jakin zuen euskarak existitzen zuela eta 2000. urtean euskara ikasten hasi zen, Euskaltzaleak euskal etxean. 2003an Argentinan Euskaraz -Gero Euskara Munduan bihurtu zen-programako kide bihurtu zen: gutxiago zekitenei euskara irakasten hasi zen. 2006an eta 2008an Euskal Herrira joan zen, euskara ikastera eta euskara-tituluak ateratzera. Euskaltzaleak-eko euskara irakasleetako bat da orain (bertako kide aktiboa da: panderoa jotzen du, euskarazko ekitaldiak antolatzen ditu...). La Platako unibertsitateko euskara irakasle ere izan zen. Euskalkultura.eus webguneko kazetaria ere bada. Euskal Herrian bisitan zegoela elkarrizketatu genuen.



Pete Paris (1952)

Illyn (Nevada) jaioa, aita bertakoa zuen (aitona-amonak iparraldekoak) eta ama, berriz, Armendariz herrikoa (Nafarroa Beherea), gaztea zela Renora etorria umezain. Aitak eta osabak Paris arrantxoa zuten, aitaxik sortua. 7.000 ardi eta 700 behi izatera iritsi ziren eta hainbat langile, guztiak euskaldunak. Bost senidetan zaharrena, Petek ez zekien ingelesez hitz egiten eskolan hasi zenean. 24 urtera arte arrantxoan bizi izan zen, bertako lanak egiten. Ezkondu zenean, beste arrantxo bat alokatu zuen; alaba bat izan zuten. Denborarekin arrantxo bat erosi zuen. Banandu egin zen eta berriro ezkondu, alaba bat zeukan emakume amerikar batekin, eta elkarrekin daramate arrantxoa, ardiak dituen arrantxo bakarretakoa inguruetan.



Begoña Rementeria Mintegia (1949)

Begoña Zabala du ezkontza-izena. Boisen jaioa, ama gernikarra zuen eta aita Nabarnizkoa. Begoñaren ama nazionalista zen eta ia bi urte pasatu zituen kartzelan, gerra garaian. Aita 19 urterekin joan zen AEBetara; lehenengo artzain eta gero basoan ibili zen, zuhaitzak botatzen. Emazte bila joan zen Euskal Herrira eta halaxe ezkondu ziren. Begoñak eta bere ahizpa Mirenek etxean ikasi zuten euskara. Begoñak Erizaintza ikasi zuen eta Boiseko ospitale batean egin du lana (bertan "Sam" deitzen zioten). Lino Zabala Boisen ezagutu zuen, Lino bertako Euskal Etxera pilotan jokatzera joan zenean. 1975ean Begoña Oñatira joan zen eta Euskal Herrian berriro egin zuten topo, Gernikan, familia bisitatzera joan zelako. 1977an ezkondu ziren eta bi alaba izan zituzten (biek dakite euskaraz). Begoña Boiseko Euskal Etxean ibili da umetatik (besteak beste dantzan ikasten...) eta Jaialdia antolatzen ere ibili izan da. Euskal komunitateko kide aktiboak dira.



Ricardo Salutregi Ondarza (1934)

Boisen jaioa, ama bertakoa zuen (euskal jatorrikoa) eta aita Munitibarkoa (Bizkaia). Aita 23 urtean ardi-lanean egon zen, Homedalen. Ricardo sei senidetan hirugarrena zen. Eskola amaitzean, lau urte egin zituen artzain, aitaren konpañia berean. 1959an Boisera joan zen, Leandra izebarena: Letamendi euskal ostatuko ugazaba zen. 25 urtean suhiltzaile egin zuen lana. Dolores Etxebarria aulestiarrarekin ezkondu zen eta bi alaba izan zituzten. Boiseko euskal etxeko kide aktiboak izan ziren biak.



Pilar Sangroniz (1956)



Ezkontza-abizena Shortsleeve dauka Pilarrek. Bingham Canyon (Utah) herrian jaioa, guraso biak Gernikakoak (Bizkaia) zituen. Aita artzain joan zen Ameriketara eta ama eraman zuen gero (erizaina zen, baina tituluak ez zion balio izan Ameriketara). Aitak Kennecott Copper urre-meatzeetan egiten zuen lana. Lau senidetan bigarrena (gazteena Midvale-en jaio zen, gero hara joan baitziren bizitzera), Medikuntza teknologikoa ikasi zuen eta ospital bateko laborategian egon zen lanean hamaika urtean. Gero Utah Estatuko Laborategi Kriminalistikoan egin zuen lana 30 urtean (bertako burua izatera iritsi zen), West Valleyn. Amerikar batekin ezkondu zen, Cottonwoods Heights herrira; bi seme izan zituzten: Patxi eta Andoni. Pilar oso aktiboa izan da euskal komunitatean: Utah-ko euskal klubean idazlari lanetan, dantza-irakasle eta txistu-irakasle ibili da. Birritan joan da Euskal Herrira, euskara eta euskal kultura ikasteko programekin: Boiseko Basque Studies Centreko programarekin Oñatira eta musikariendako beste programa batekin, berriz, Gasteizera. Leon anaia ere elkarrizketatu genuen.

Robert Leon Sangroniz (1954)



Bingham Canyon (Utah) herrian jaioa, guraso biak Gernikakoak (Bizkaia) zituen. Aita artzain joan zen Ameriketara eta ama eraman zuen gero (erizaina zen, baina tituluak ez zion balio izan Ameriketara). Aitak meatzeetan egiten zuen lana. Lau senidetan zaharrena (gazteena Midvale-en jaio zen), Ingenieritza elektrikoa ikasi zuen eta Oregonen egon zen lanean hamar urtean. 1983an ezkondu zen, Katherine Dennettekin. Pilar arreba ere elkarrizketatu genuen, Salt Lake Cityn; Cottonwoods Heights herrian bizi ziren biak.

Anita Zubillaga (1952)

Ezkonduz geroztik, Anita Izoco. Susanvillen jaioa, Californian, aita Esnazukoa zuen (Aldude ondoan) eta ama Susanville ondoan jaioa, baina jatorri euskalduneko (aita gipuzkoarra zuen eta ama Erratzukoa, nafarra). Renon ezagutu zuten elkar, Santa Fe ostatuan lanean ari zirelarik.



Hiru senidetan zaharrena da Anita. Bost urtera arte ez zekien ingelesez, etxean euskaraz mintzatzen zirelako. Idazkaritza ikasketak egin ondotik San Franciscora joan zen lanera, FBI n idazkari. Han ezagutu zuen senarra izango zuena: Jean Pierre Izoco: Baigorri sortua, 1958an Los Bañosera (California) joan zen artzain eta San Franciscoko okindegi batean egiten zuen lana. 1976an Garderville (Nevada) joan ziren bizitzera, Sierra motela erosi zutelako bertan; 28 urtez egin zuten lana motelean. Hiru seme-alaba izan zituzten. Gardnervilleko euskal klubaren sorreran parte hartu zuten.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-04-11

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com